

**BIZKAIKO NEKAZARITZAREN AZKEN URTEETAKO
EBOLUZIOARI BURUZKO ADIERAZLE BATZUK**

Ekonomiaren arlo guztietan gertatzen den bezala, nekazari-tzari buruzko edozein azterketatan interes handiagoko gauza da bilakaerak edo eboluzioak ikustea momentu jakin batzuetako irudi estatikoak ematea baino. Hori oso gauza argia izanik ere, ez dira asko izaten denboraldi luzetxoak hartzen dituzten azterlanak eta balorazioak. Ohiko komunikabideetan oihartzuna dutenetan, behintzat, urte batetik besterako aldaketak izaten dira gehientsuenetan baloratzen diren bakarrak. Nik –ahal dudan heinean- hamar urte inguruko aldia hartu dut, aski luze delakoan batetik, eta baita beste arrazoi batengatik ere: duela justu hamar urte onartu zelako Europako Nekazaritza Politika Bateratuaren lehendabiziko erreforma, oraintsu arte indarrean egon dena; interesgarria izan daiteke erreformak sektorean eduki duen eragina neurtzen saiatzea, ordutik hona gertatutakoari begira paratuz.

Artikulu honen helburua mugatua da: Bizkaiko nekazari-tzak azken urteetan izan duen eboluzioa baloratzeko elementu edo osagai batzuk ekartzea, besterik ez. Hona hemen horretarako zer egingo dudan: Sektorearen baitako alderdi eta aldagai batzuk hautatu (inongo exhaustibotasunik ez, beraz), bakoitzari buruzko adierazle ekonomiko edo bestelakoren bat aukeratu, eta adierazle horien eboluzioaren zifra batzuk